


LEHORREAN AURREIKUSI —ITSASOAN— IRABAZI



ZURE OSASUNA TRIPULAZIOAREN ZATI DA. BERRIKUSI ONTZIRATU AURRETIK



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

ZER DA ITSASONTZIRAKO ONTZIRATZE AZTERKETA MEDIKOA (RMEM)?

Itsasoko Gizarte Institutuaren (ISM) osasun-zerbitzuko mediku batek egiten duen **balorazioa** da. **Arrantzale edo itsasgizon-emakumeen osasun-egoera lanpostuko arriskuekin bateragarria den ala ez ziurtatzeko helburuarekin.** Horrela osasun egoera egokia bada, lan baldintzek ez dezaten narriatu.

Zertan datza azterketak (RMEM)?

- Mediku batek eginiko elkarriketa klinikoa eta azterketa orokorra, sistema eta aparatuak jarraiki.
- Froga osagarriak, ikusmen zorroztasun frogak, entzumen eta arnasketa funtzioen balorazioa eta elektrokardiograma.

Azterketa motak

- Hasierakoa
- Aldizkakoa
- Ez-ohikoa

AZTERKETA (RMEM) DERRIGORREZKOA DA?

Bai, derrigorrezkoa da, nazioarteko eta estatuko araudien arabera, **helburua itsasoko langile eta urpeko profesionalen egoera psikofisikoak egokiak direla bermatzea** baita, ontzian bertan eta lanpostuko betebeharretan jardutean, beharrezko baldintzak bermatzea, baita ingurune **hiperbarikoan egiten diren lanetan ere,** langilearen beraren segurtasuna, gainerako tripulazioarena eta nabigazio segurtasuna arriskuan jarri gabe.



EGOKITASUN AZTERKETA MEDIKOAK ESKATZEKO BALDINTZAK

- Hamasei urte baino gehiago izatea.
- Nortasuna egiaztatzea, NAN edo AIZ bidez.
- Nabigazioa Maritimoko Liburuxka aurkeztea.
- Gizarte Segurantzaren Itsasoko Langileen Erregimen Berezian afiliatuta egotearen ziurtagiria aurkeztea.
- Aldi baterako ezintasun egoeran edo baja medikoan ez egotea.

Aurretik esandako betetzen ez bada:

- Itsas arrantza sektorean enplegu eskatzailea izatea eta lanpostuak itsasontzirako ontziratzeko azterketa medikoa eskatzea.
- Espainiako banderapean dagoen ontzi batean tripulazio gisa kontratatzeako aurreikuspen ziurtagiri bat edukitzea.

Urpeko profesionalen kasuan:


- Hemezortzi urtetik gorakoa izatea.
- Nortasuna egiaztatzea, NAN edo AIZ bidez.
- Espainiako nazionalitatea izanez gero, urpekaritza profesionaleko identifikazio txartela aurkeztea.
- Ondoko egoeretako batean dagoela egiaztatzea:
 - Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian sartuta dauden kategorietan urpeko profesional gisa enplegu eskatzaile moduan inskribatuta egotea.
 - Urpekari profesional gisa kontratatzeako aurreikuspen ziurtagiri bat edukitzea.
- Baja mediko egoeran, aldi baterako ezintasun egoeran edo ezintasun iraunkor osoko egoeran ez egotea.



EGOKITASUN AZTERKETA MEDIKOEN EMAITZAK

Ontziratzeko egokitasun mailak:

- Gai**
- Ez gai:** Azterketa egin duen medikuaren iritziz ontzian lan egitearekin bateragarriak ez diren osasun-arazoak dituenen.
- Gai murrizketekin:** Langileak osasun-arazoren bat duenean, itsasoan lan egiteko erabat desgaitu gabe, itsasontziko eginkizun edo zereginetako batzuk mugatzea edo aldatzea gomendatzen da.



Urpekaritza profesionalerako gaitasun-mailak:

- Gai:** Baldintza psikofisikoak betetzen ditu eta ez dauka ingurune hiperbarikoan lan eginez larriagotu daitekeen gaixotasunik..
- Ez gai:** Lanpostuan jardutearekin bateraezina den muga edo prozesu patologikoren bat du.
- Gai murrizketekin:** Muga psikofisikoak ditu, eta bere lana egokitu behar du, hurrengoan arabera:
 - Gehieneko lan-sakonera
 - Urperaketen maiztasuna
 - Ingurunean emandako denbora
 - Erabili beharreko ekipamenduak
 - Hurbilen dagoen tratamendu hiperbarikoko zentrora dagoen distantzia
 - Urpeko jarduera-mota
 - Beste eragile batzuk, irizpide medikoaren arabera

GOGORATU

RMEM-k ez du balio enpresaburuak bere langileen osasunaren xehetasunak ezagutu ditzan. Helburua ez da soilik legedia betetzea, langileen osasuna babestea ere bai, itsasoko laneko inguruneak eragin edo larriagotu ditzakeen gaixotasunak edo baldintzak aurrez identifikatuz.



MEDIKU-ZIURTAGIRIEN INDARRALDI DENBORALDIA

- Itsas ontziratzeko:** 2 urtera arte (urte bat, 18 urtetik beherakoa bada)
- Urpekaritza profesionala:** urtebete arte.

NON EGITEN DIRA AZTERKETAK, (RMEM)?

Itsasoko Gizarte Institutuak penintsulan eta uharteetan dituen itsas osasuneko zentroetan

NOLA ESKATU RMEM-ko HITZORDUA?

- **Internet bidez:** Gizarte Segurantzaren ataria edo egoitza elektronikoa.
- **Telefonoz:** ISM-ren probintzia eta tokiko zuzendaritzetan.
- **ISM-ren APP-en:** Itsas Osasunaren Arloan.



Eskaneatu QR eta sartu
ISM-ren probintzia eta
toki zuzendaritzetara

